a) De oficio. Por B.Z. para los supuestos de inhumación en régimen de concesión temporal en panteones comunitarios, se realizará, cuando haya transcurrido, como mínimo, el plazo a que se refiere el artículo 27, de este Reglamento, en función de las necesidades y adecuada planificación de los espacios disponibles para las inhumaciones, y teniendo en cuenta el estado general de las unidades de enterramiento. Transcurrido dicho plazo se procederá a la exhumación de los restos, comunicándolo, a los familiares o allegados, de acuerdo con la normativa vigente.

Si a la hora de procederse a la exhumación no constara solicitud alguna, se entenderá que los interesados renuncian a cualquier derecho en este sentido, procediéndose, tras la exhumación, de oficio, a la inmediata cremación de los restos y su destino a un espacio común.

b) A instancia de parte. Los familiares o allegados que quisieran proceder a la cremación y/o traslado de los restos al nicho-osario o concesión que a tal efecto dispongan o a otro cementerio de los municipales, deberán solicitarlo con la debida antelación, ante B.Z.

**Artículo 31**

Realizada la exhumación, cuando los restos no reúnan las condiciones para proceder a su reducción, se procederá a su cremación. En este sentido, cuando se constate que no ha finalizado el proceso de descomposición de los restos que se pretenden exhumar, se procederá a su inmediata incineración en un arca provista al efecto.

III. SECCIÓN 4.<sup>a</sup>  
CREMACIONES

**Artículo 32**

La prestación del servicio de cremación se realizará conforme a lo establecido en las disposiciones legales vigentes en la materia.

La cremación requerirá de la documentación exigida por la normativa sanitaria.

**Artículo 33**

Con ocasión de la cremación podrá utilizarse como última despedida el espacio destinado a este fin en el Crematorio. Su utilización deberá acomodarse a las instrucciones emanadas de B.Z. y en ningún caso podrá suponer molestias para otros usuarios o visitantes del cementerio ni para la adecuado funcionamiento y organización del crematorio.

**Artículo 34**

Una vez producida la cremación, las cenizas se entregarán, tras su adecuado tratamiento, en una urna al efecto. En dicha urna figurará el nombre del difunto. Junto con las cenizas se entregará un certificado de la cremación realizada.

**Artículo 35**

Las cenizas no retiradas por los solicitantes del servicio en el plazo de un mes serán retiradas del Crematorio y destinadas a un espacio común.

**Artículo 36**

Los miembros y restos humanos serán incinerados, salvo que los interesados soliciten su inhumación en concesiones de su titularidad previstas para tal fin.



IV. KAPITULUA  
HILETA-ESKUBIDEA

IV. 1. SEKZIOA

HILETA-ESKUBIDEAREN EDUKIA, IZAERA ETA MOTAK

**37. artikulua**

Hobiratzeko unitate bat erabiltzeko hileta-eskubidea emakidaren bidez sortzen da, ezarri beharreko eskubide ekonomikoak ordaindu eta, hala behar denean, indarrean dagoen legeriak ezarritakoa bete ondoren. Hileta-eskubidea hobiratzeko unitateen erabilerara mugatuta dago. Hala, beraz, ez du eraginik lurzorua jabetzan, hori udalaren jabari publikoa baita, eta, era berean, ez du eraginik titularrak egin ez dituen eraikinetan. Titularrak egin dituen eraikinek, bestalde, interes historikoa, artistikoa edo kulturala duten ondasunek dituzten betebeharrak berberak izango dituzte.

Hortaz, hileta-eskubidea merkataritza-transakzio guztietatik kanpo utziko da, eta kostu bidez eskuratzeko baztertuta ere bai; eta Araudi honek eta indarrean dauden gainerako legeek xedatutakoa bete beharko du.

**38. artikulua**

1. Hileta-eskubidea udalaren administrazio-emakida bat da, eta modalitate hauek izan ditzake:

1.1. Ezin berritu daitekeen aldi baterako emakida: gorpu bat edo gorpuzkinak berehala uzteko baizik ez da emango, eta, gutxienez, bost urteko iraupena izango du.

1.2. Aldi jakin batzuetarako emakidak (aldi horiek sekula ere ez dute indarrean dagoen legeriak ezarritako gehieneko kopururik gora joko).

Aldi hauek finkatu dira:

- a) Panteoiak eta hilobiak: 75 urte.
- b) Horma-hilobiak: 50 urte.
- c) Hezurtegiak/kolonbarioak: 25 urte.

2. Aurreko idatz-zatian aipatutako emakidak B.Z. sozietateak xedatzen dituen hilobi-mota desberdinei egokituko zaizkie, ondorio horretarako egindako programazioari jarraiki.

Nolanahi ere, B.Z. sozietateak behar bezala bermatuko du Araudi honen 4. artikulua 1-b idatz-zatian aipatzen den hilerriko zerbitzua; eta, horretarako, plangintza egokia egingo du, Bilboko udalerriri dituen beharrianak betetzeko gune eta hilobi aski egongo dela ziurtatzeko.

3. Hobiratzeko unitateek jasoko dituzte panteoien, hilobien eta horma-hilobien hileta-eskubideak, finkatutako epeetan jaso ere, lehenengo emakida izan zen egunetik hasita. Emakidaren epea bukatu ondoren, B.Z. sozietateak beste emakida bat eman ahal izango du, Araudi honetan finkatutako epeetarako, indarrean dauden tasak ordaindu ondoren. Ez du horrela jokatuko, interes publiko arrazoiak direla-eta hori egitea gomendagarria ez bada.

Emakida amaitu ondoren, bukatutako eskubidearen titularrak edo bere kausadunek lehentasunezko eskubidea izango dute horren gainean, eta, ildo horretan Kode Zibileko 1.637, 1.656 eta antzeko artikuluetan jasota dauden arauak ezarriko dira, hileta-eskubidearekin bateragarria den esparruan.

4. Hezurtegi/kolonbarioen emakidaren aldia amaitu aurretik, luzapenak eman ahal izango dira, titularrak, oinordekoek edo kausadunek hala eskatzen badute. Luzapen horietako bakoitzaren iraupena emakidaren aldiaren parekoa izango da, eta muga orokorra 75 urtekoa izango da. Luzapen horrek dagokion tasa sorraziko du.

**39. artikulua**

1. Hileta-eskubide bat hobiratzeko unitate bati esleitzean, titularrak unitate horiek erabiltzeko eskubidea hartzen du, zehazki, emakidan finkatutako denboraldian gorpuk eta gorpuzkinak bertan bilatzeko.

CAPÍTULO IV  
DEL DERECHO FUNERARIO

IV. SECCIÓN 1ª

CONTENIDO, NATURALEZA Y MODALIDADES DEL DERECHO FUNERARIO

**Artículo 37**

El derecho funerario sobre el uso de una unidad de enterramiento, nace por el acto de concesión, el pago de los derechos económicos establecidos que resulten de aplicación, y el cumplimiento, en su caso, de la normativa vigente. El derecho funerario, se limita exclusivamente el uso de las unidades de enterramiento, sin afectar a la propiedad del suelo, que es de dominio público municipal, ni a las construcciones no realizadas por el titular, estando en estas, (las realizadas por el titular) a lo dispuesto para los bienes de interés histórico, artístico o cultural.

En consecuencia el derecho funerario queda excluido de toda transacción mercantil y disponibilidad a título oneroso, quedando sujeto a las regulaciones de este Reglamento y demás normativa vigente.

**Artículo 38**

1. El derecho funerario ostenta el carácter de Concesión Administrativa Municipal, y podrá adquirir las siguientes modalidades:

1.1. Concesión temporal no renovable: se otorgará para el inmediato depósito de un cadáver o restos exclusivamente, por un período mínimo de cinco años.

1.2. Concesiones por períodos determinados, que en ningún caso podrán exceder del máximo establecido por la Legislación vigente.

Estos períodos se establecen en:

- a) Panteones y sepulturas: 75 años.
- b) Nichos: 50 años.
- c) Osarios/columbarios: 25 años.

2. Las concesiones a que se refiere el apartado anterior, podrán recaer sobre las diferentes modalidades de enterramiento que para cada caso disponga B.Z., de acuerdo con la programación realizada al efecto.

En todo caso, la prestación del servicio de cementerios a que se refiere el artículo 4, apdo. 1-b del presente Reglamento, será garantizado por B.Z. mediante una adecuada planificación, que asegure la existencia de espacios y construcciones de inhumación suficientes para atender las necesidades del Municipio de Bilbao.

3. Los derechos funerarios de los panteones, sepulturas y nichos, se concederán sobre las unidades de enterramiento, en los plazos previstos, contados a partir de la fecha de la primera concesión. Expirado el plazo concesional, B.Z. podrá optar por proceder a una nueva concesión por los períodos estipulados en este Reglamento, previo abono de las tasas en vigor, salvo que por causas de interés público lo desaconsejen.

Al vencimiento de la concesión, el titular del derecho vencido o sus causahabientes, tendrán derecho de preferencia sobre la misma, que se aplicará conforme a las reglas de los artículos 1637, 1656 y concordantes del Código Civil, en lo que resulte compatible con el Derecho funerario.

4. Antes de terminar el período de concesión, de los nichos osarios/columbarios, podrán otorgarse prórrogas a petición del titular o de los herederos o causahabientes. Cada una de ellas tendrá una duración igual al período de concesión, con un límite global de 75 años. Dicha prórroga devengará la tasa correspondiente.

**Artículo 39**

1. La adjudicación del título del derecho funerario, sobre las unidades de enterramiento, otorga a su titular el derecho de uso de las mismas, para depósito, de los cadáveres y restos cadavéricos inhumados en la unidad de enterramiento asignada, durante el período fijado en la concesión.

2. Ezin berriro daitezkeen aldi baterako emakidak Bilboko udalerrian jaio, bizi edo hil diren pertsonen gorpuak hobiratzeko erabiliko dira, B.Z. sozietateak baimendutako salbuespenak al debatera utzita.

Hartzen den eskubidea hobiratzeko gorpuari baizik ez dago; beraz, ez du eskubiderik ematen hobiratzeko unitate horretan erabilgarri egon daitekeen gainerako lekua baliatzeko.

Horma-hilobietatik hobietara —edo alderantziz— gorpua lekualdatuz gero, gorpuek utzitako hutsunea Udalaren eskura itzuliko da, berdin dio zenbat denbora igaro den bitartean, eta, beraz, hasierako eskubidea galduko da.

3. Epe jakinetarako emakidei dagokienez, eskubidearen titularrak eman dioten hobiratzeko unitatea erabili ahal izango du bera eta bere familia hilobiratzeko, laugarren ahaidetasun-mailako senideak barne hartuta —ezkontzako ahaidetasunekoak nahiz odol-kidetasunekoak—. Salbuespen gisa, gizatasuna edo afektua dela eta eskubidearen titularrarekin lotura berezia duten pertsonak ere hilobiratu ahal izango dira bertan.

44. artikularen c) eta d) idatz-zatietan jasotako kasuetan, hileta-eskubidea bertan jasotzen den aldi luza izango da.

#### 40. artikulua

Aurreko artikuluetan jasota dagoenez, hileta-eskubidea emakida baliatzera egongo da mugatuta, eta Araudi honetako arauak, izan ditzakeen aldarazpenak eta gainerako lege-xedapenak bete beharko ditu.

#### 41. artikulua

Emakidako erregimenean eskatzen diren hobiratzeko unitateak eskura dagoen unitate-kopurua baino gehiago badira, eskuragarri dauden horiek banatuko dira eskatzaileen artean, ordenari zorrotz jarraituta, eskabidea aurkeztutako eguna aintzat hartuta.

#### 42. artikulua

Hilobiratzeko unitateen gaineko hileta-eskubidea bermatzeko, B.Z. sozietatearen Hilerrien Erregistro Liburuan inskribatuko da, eta emakida bakoitzari dagokion titulu izenduna jaulkiko da.

#### 43. artikulua

Titularrak edo titularrek hileta-eskubidea edukiko dute, haie-tako batek B.Z. sozietatearen bulegoetan uzteko eskatzen ez badu behintzat.

#### 44. artikulua

1. Honako hauek emakiden gaineko hileta-eskubidea izango dute, legez ezarritako gehieneko epetik gora joko ez duen denboraldian:

- a) Pertsona fisikoak.
- b) Legez onartutako ezkontideak eta izatezko bikotekideak, erregimen ekonomikoa zeinahi delarik ere.
- c) Erliziozko erkidegoak edo Administrazioaren onespina jaso duten ongintzako etxeak edo ospitaleak, baina soilik kideek, eta babestutako edo hartutako lagunek erabiltzeko.
- d) Irabazteko asmorik ez duten eta legez eraturik dauden fundazioak, elkarteak eta erakundeak, baina soilik kideek erabiltzeko.

2. Merkataritzako erakundeak edo irabazteko asmoa duten ezin izango dira sekula hileta-eskubideen titular izan. Bereziki —bakarrik edo beste arrisku batzuk osatzeko— asegurudunei edo partaideei hobiratzeko eskubidea bermatzen dieten aseguruetxeak, aurreikuspenekoak, edo antzeko helburuak dituzten erakundeak.

3. B.Z. sozietateak hileta-eskubidearen titulartasuna onetsiko du, sekzio honek 1. idatz-zatiko a) eta b) letretan jaso dituen arauak jarraiki. Bestetik, c) eta d) idatz-zatietako eskabideei dagokienez, B.Z. sozietatearen Zuzendaritzak askatasunez ebatziko ditu eskaerak, haien helburuak eta ezaugarriak aintzat hartuta, eta indarrean dagoen araudia betez.

2. Las concesiones temporales no renovables estarán destinadas, salvo casos excepcionales, y en tal sentido autorizados por B.Z., a la inhumación de cadáveres de personas nacidas, residentes o fallecidas en el Municipio de Bilbao.

El derecho que se adquiere se refiere, en exclusiva, al depósito del cadáver inhumado, sin que presuponga el derecho de utilización del resto del espacio disponible en la correspondiente unidad de enterramiento.

Si se realizan traslados de nichos a fosas o viceversa, el hueco dejado por los mismos revertirá al Ayuntamiento, cualesquiera que sea el tiempo transcurrido, perdiéndose el derecho de uso inicial.

3. En los supuestos de concesiones por períodos determinados, el titular del derecho podrá hacer uso de la unidad de enterramiento que le haya sido asignada, para su propia inhumación y la de sus familiares hasta cuarto grado inclusive de parentesco, ya sea por afinidad o por consanguinidad, y en casos excepcionales la de las personas con las que les une especial afección o razón de humanidad.

En los supuestos c) y d) del apartado primero del artículo 44 el derecho funerario tendrá la extensión que al efecto se establece.

#### Artículo 40

El derecho funerario, tal y como se reconoce en los artículos anteriores, se limita al uso de la correspondiente concesión y queda sujeto a las regulaciones del presente Reglamento, sus posibles modificaciones y demás disposiciones legales.

#### Artículo 41

En caso de que la demanda de unidades de enterramiento en régimen de concesión sea superior a la disponibilidad de las mismas, se asignaran las existentes entre los solicitantes, siguiéndose rigurosamente, el orden determinado por la fecha de solicitud.

#### Artículo 42

El derecho funerario sobre toda clase de unidades de enterramiento, quedará garantizado mediante la inscripción en el Libro Registro de Cementerios de B.Z., y por la expedición del Título Nominativo para cada Concesión.

#### Artículo 43

El título del derecho funerario permanecerá en posesión del titular o titulares, salvo que a petición de alguno de ellos, se requiera su depósito en las dependencias de B.Z.

#### Artículo 44

1. Podrán acceder a la titularidad del derecho funerario sobre las concesiones por períodos no superiores al máximo legalmente establecido:

- a) Las personas físicas.
- b) Los cónyuges y parejas de hecho legalmente reconocidas, con independencia del régimen económico.
- c) Las comunidades religiosas o establecimientos benéficos u hospitalarios reconocidos como tales por la Administración, para uso exclusivo de sus miembros y de los asilados y acogidos.
- d) Fundaciones, asociaciones y entidades sin ánimo de lucro legalmente constituidas, para uso exclusivo de sus miembros.

2. En ningún caso podrán ser titulares del derecho funerario sobre concesiones entidades mercantiles o con fines de lucro. Especialmente, las Compañías de Seguros, de Previsión o cualquier otra entidad con fines similares y que, exclusivamente o como complemento de otros riesgos, garanticen a sus asegurados o partícipes el derecho de sepultura.

3. El reconocimiento de la titularidad del derecho funerario se efectuará por B.Z. de acuerdo con las normas de esta Sección en los supuestos de las letras a) y b) del apartado 1. Para las solicitudes de los apartados c) y d) la Dirección de Bk resolverá libremente sobre las solicitudes, atendiendo a los fines y características de las mismas y ateniéndose a la normativa vigente.

**45. artikulua**

Hileta-eskubidearen tituluak berekin dakartzan eskubideak titullarrari dagozkio soilik.

Aurreko artikuluko b) idatz-zatian jasotako kasuan, bi pertsonetatik edozeinek erabili ahal izango ditu hileta-eskubideak. Bestalde, c) eta d) kasuetan, estatutuei jarraiki kargua duen pertsonak baliatuko du hileta-eskubidea, eta, berak izan ezik, presidenteak edo kargu gorena duenak egingo du.

**46. artikulua**

1. Hildakoaren seniderik hurbileneak eskabidea egin ondoren, zerbitzua egiteko banakako espedienteak izapidetuko da. Hurbileko seniderik ez badago, beste pertsona batek erantzun beharko du esku-hartze horretaz.

2. Zerbitzua egiteko eskabidearekin batera, hildakoak adierazitako borondatea egiaztatzen duen agiria aurkeztu beharko da, eta, horrelakorik ez badago, seniderik hurbileneak adierazitakoa ziurtatzen duen agiria.

## IV. 2. SEKZIOA

**HILETA-ESKUBIDEAREN TITULARREN BETEBEHARRAK****47. artikulua**

Hileta-eskubidearen titularrak betebeharrak hauek izango ditu:

1. Jaulkitako hileta-eskubidearen titulua gorde edo bilduko du, Araudi honek 43. artikuluan xedatutakoari jarraiki. Titulua ezinbestez egiaztatu beharko da zerbitzuak egiteko edo obrak baimentzeko eskareri erantzuteko.

Galduz gero, ahalik eta arinen jakinarazi beharko zaio B.Z. sozietateari, premiaz beste titulu bat jaulki dezan.

2. B.Z. sozietateari baimena eskatu beharko dio hilobiratzeko unitateetan obrak egin ahal izateko, Araudi honek 19. artikuluan xedatutakoari jarraiki.

3. Hilobiratzeko unitateari dagozkion hasierako obrak egingo ditu, gehienez bi urteko epean, emakida jasotzen den egunetik hasita.

Epe hori ezarriko zaie hala lur-emakidetan egin beharreko lurpeko kriptei, nola, emakida eduki aurretik lurpeko kripta eraikitako badago, aurre-alboko bistei eta hegalei.

4. Behar diren neurriak hartuko ditu hilobiratzeko unitatea era egokian egon dadin segurtasun, zainntza eta apaindura publikoari dagokienez. Apaingarriak jartzeko aukera murriztuta egongo da, B.Z. sozietateak ondorio horretarako xedatzen duen horretara.

Hilobiratzeko unitate horiek ezar daitezkeen arauak diotena bete beharko dute, bereziki, osasun eta laneko arriskuei aurrea hartzeko arauak, hartara, arriskurik egon ez dadin B.Z. sozietateko langileentzat.

5.- Hondakin-egoerei begira 49. artikuluko b) idatz-zatian jasotakoari kalterik egin gabe, B.Z. sozietateak, ofizioz edo interesduinak eskatuta, aginduko du obrak egin daitezkeen aurreko paragrafoan aipatutako baldintzak zaintzeko. Era berean, titularrei epe jakin bat emango die adostutakoa bete dezaten, eta ohartaraziko die agindutakoa bete ezean zigorra jarriko diela. Epe hori igaro ondoren agindutakoa bete ezean, B.Z. sozietateak egingo du sorospidez, baina gastuak titularraren kontura izango dira.

6. Araudi honen 20. artikuluko arabera, hileta-eskubidearen titularrak laguntza eman beharko du hilerria kontserbatzeko, eta, ildo horretan, dagokion zerga-ordenantzan finkatutako tasa ordaindu beharko du. Era berean, kontzeptuei eta prestazioei dagozkien eskubide ekonomikoak ordaindu beharko ditu, arlo horretan indarrean dagoen zerga-ordenantzak ezarritakoa betetz.

**Artículo 45**

El ejercicio de los derechos implícitos en el título del derecho funerario corresponden en exclusiva al titular.

En el supuesto contemplado en el apartado b) del artículo anterior, podrá ejercitar los derechos funerarios cualesquiera de las dos personas. En los supuestos c) y d), ejercerá el derecho funerario la persona que ostente el cargo al que estatutariamente le corresponda esta facultad, o en su defecto, el Presidente o cargo de mayor rango.

**Artículo 46**

1. La tramitación del expediente individualizado en orden a la prestación del servicio se iniciará mediante solicitud formulada por el pariente o parientes más próximos al finado o, si no los hay, por otra persona que tendrá que dar razón satisfactoria sobre su intervención.

2. La solicitud de prestación de servicio tiene que presentarse acompañada del documento acreditativo de la voluntad expresada por el finado o, si no existe, por los parientes más próximos.

IV. SECCIÓN 2.<sup>a</sup>**OBLIGACIONES DE LOS TITULARES DEL DERECHO FUNERARIO****Artículo 47**

El titular del derecho funerario vendrá obligado al cumplimiento de las siguientes obligaciones:

1. Conservación o depósito, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 43 del presente Reglamento, del título del derecho funerario expedido. La acreditación del título será preceptiva para atender la solicitud de demanda de prestación de servicios o autorización de obras.

En caso de extravío deberá notificarse a B.Z., a la mayor brevedad posible, para la urgente expedición de un nuevo título acreditativo.

2. Solicitar de B.Z. la previa autorización para la realización de obras en las correspondientes unidades de enterramiento de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 19 del presente Reglamento.

3. Realizar las obras iniciales correspondientes a la unidad de enterramiento en un plazo máximo de dos años desde la fecha de su concesión.

Este plazo se aplica tanto a las criptas bajo suelo a realizar en las concesiones de terreno, como en el vuelo y alzados a realizar cuando la cripta bajo suelo haya sido construida de forma previa a la concesión.

4. Disponer las medidas necesarias para asegurar el mantenimiento de la unidad de enterramiento en las debidas condiciones de seguridad, conservación y ornato público, limitando la colocación de elementos ornamentales a las determinaciones que, a tal efecto, establezca B.Z.

Dichas unidades de enterramiento deberán adecuarse a las distintas normativas aplicables en especial la sanitaria y la de prevención de riesgos laborales a fin de que no impliquen riesgos, para los trabajadores del B.Z.

5. Sin perjuicio de lo establecido en el apdo.b) del artículo 49 para las situaciones de ruina, B.Z., de oficio o a instancia de cualquier interesado, ordenará la ejecución de las obras necesarias para conservar las condiciones mencionadas en el párrafo anterior, concediendo a los titulares un plazo, para que procedan al cumplimiento de lo acordado, con advertencia de imposición de sanción en caso de incumplimiento. Transcurrido el plazo concedido al efecto, sin haberlas ejecutado, se llevarán a cabo subsidiariamente por B.Z., corriendo los gastos por cuenta del titular o titulares.

6. De conformidad con el artículo 20 del presente Reglamento, el titular de un derecho funerario, viene obligado a coadyuvar a la conservación del Cementerio, mediante el abono de la tasa fijada en la Ordenanza Fiscal correspondiente. Asimismo deberá abonar los derechos económicos correspondientes a los diferentes conceptos y prestaciones, de conformidad con la Ordenanza Fiscal vigente sobre la materia.

7. B.Z. sozietateari datu pertsonalak eman beharko dizkio, sozietatea harremanetan jar dadin hobiratzeko unitateen gaineko emakiden titularrekin; titularren erantzukizuna izango da datu horietan izan daitezkeen aldaketan berri ematea. Idatz-zati honetan jarritakoa bete ezik, B.Z. sozietateak kudeaketa egokiak egingo ditu bere erregistroak behar bezala eguneratzeko.

8. Une oro jokabide egokia izango du, Araudi honek 7. artikuluan ezarritakoari jarraiki. Obrek eta inskripzioek errespetua izango dute, esparruak dituen eginkizunak kontuan izanda. Hala, beraz, ondorio horretarako ematen diren baimenek ez diete hirugarren batzuei kalterik egingo, eta sustatzaileak berak hartuko ditu bere gain izan litezkeen ondorioak.

#### IV. 3. SEKZIOA

##### HILETA-ESKUBIDEA ALDATZEA ETA IRAUNGITZEA

#### 48. artikulua

Hileta-eskubidea ofizios edo interesdunak hala eskatuta berterendu, zuzendu, aldatu edo bestelakotu ahal izango da.

a) Ofizios egiten denean, B.Z. sozietateak aurreko alderdiak ezarri ahal izango ditu, aldi batez, behar bezala ohartarazi ondoren, eta, betiere, interes publikoa edo ezinbesteko kasua baldin bada. Aldaketa hori aldi baterako izan daiteke. Bertan, gorpuk eta/edo gorpuzkinak beste hilobi batzuetara lekualdatuko direla adieraziko da, interesdunei jakinarazi ondoren.

b) Hileta-eskubidea partikular batek eskatu duelako aldatzen bada, horrek Zerga Ordenantzan jasota dauden tasak sorraraziko ditu.

Bi kasuetan, auzibidea abiaraziko da, eta, bertan, proba jaso eta hileta-eskubidearen titulua eta egoera justifikatzeko behar diren agiriak bilduko dira, galdu denean izan ezik. Titulua emateari uko egitea ez da oztopo izango espedientea garatzeko.

Aurreko idatz-zatian aipatutako lekualdaketak egingo dira, ezarri beharreko osasun-arloko araudietan horri buruz finkatutakoari kalterik egin gabe.

#### 49. artikulua

Hileta-eskubidea kasu hauetan iraungituko da:

a) Emakidetan finkatutako epea amaitu delako, edo hasierako emakida edo —hala behar denean— luzapenak ematean legez ezar daitezkeen gehieneko epea amaitu delako, edota lehentasunez erosteko eskubidea ez erabiltzeagatik.

b) Araudi honetako 47.3-4 eta 6. artikuluetan jasotako betebeharrak ez betezeagatik. Egoera eta iraungitze hori adierazteko, administrazioko espedienteak beharko da.

c) Hileta-eskubidearen titularra den hildakoaren oinordekoak edo onuradunak ez egoteagatik, Araudi honen 44. eta hurrengo artikuluetan ezarritakoari jarraiki.

d) Titularra hil denetik hamabost urte igaro, eta izan daitezkeen onuradunek edo oinordekoek ez dutelako hileta-titulua eskatu.

e) Hilobia bost urtetik gorako denboraldian bertan behera uztean Araudi honek 47-6 artikuluan jasotako betebeharrak ez betezeagatik.

f) Interes publikoko arrazoiak direla-eta emakida erreskateagatik, edo emakidaren titularri ezin leporatu dakioken hondamen-egoera edota ezar daitezkeen bestelako lege-arrazoiak tar-tean egoteagatik.

g) Emakidadunak uko egiten duelako.

#### 50. artikulua

1. Goiko a) kasuari dagokionez, epe hori bukatu ondoren, titularri eskatuko zaio gorpuzkinak hezurtegi edo kolunbario berezietara eraman ditzan.

Ezin berriztatu daitezkeen aldi baterako emakidetan, errekerimendu hori bakarrik egingo da interesdunak B.Z. sozietateari eskatzen badiu emakida iraungi baino sei hilabete lehenago.

7. Informar a B.Z. de los datos personales que permitan y faciliten la necesaria comunicación de B.Z. con los titulares de las concesiones sobre las unidades de enterramiento, siendo de su responsabilidad, dar cuenta de los cambios que se produzcan en dichos datos. Ante el incumplimiento de este apartado B.Z. realizará las gestiones oportunas para actualizar sus registros correctamente.

8. Observar en todo momento un comportamiento adecuado, acorde con lo establecido en el artículo 7 del presente Reglamento. Las obras e inscripciones deberán ser respetuosas con las funciones del recinto y, por consiguiente, las autorizaciones a tal efecto se concederán, en todo caso sin perjuicio a terceros, asumiendo el promotor de las mismas las responsabilidades que pudieran derivarse.

#### IV. SECCIÓN 3.ª

##### MODIFICACIÓN Y EXTINCIÓN DEL DERECHO FUNERARIO

#### Artículo 48

La transmisión, rectificación, modificación o alteración del Derecho Funerario, podrá ser declarada, de oficio o a solicitud del interesado.

a) Cuando sea de oficio, B.Z. podrá realizar los extremos anteriores, con carácter transitorio, previo aviso y por razones de interés público o fuerza mayor. En dicha modificación, que puede tener carácter transitorio, se dispondrá el traslado de cadáveres y/o restos a otros enterramientos, previa notificación a los interesados.

b) Cuando la modificación del Derecho Funerario sea realizada a instancia de particular, devengará las tasas al efecto señaladas en la Ordenanza Fiscal.

En ambos casos, se abrirá expediente administrativo, en el que se practicará la prueba y se aportará la documentación necesaria para justificar sus extremos y el título del derecho funerario, excepto en el caso de pérdida, sin que sea obstáculo para el desarrollo del expediente la negativa de entrega del título.

Los traslados a que se refiere el apartado anterior, se realizarán sin perjuicio de lo establecido al respecto en la reglamentación sanitaria de aplicación.

#### Artículo 49

El derecho funerario se extingue en los siguientes supuestos:

a) Por haber transcurrido el período fijado en las concesiones o el plazo máximo legalmente aplicable en el momento de la concesión inicial, las prórrogas, en los casos que procedan, y por no hacer uso del Derecho de tanteo.

b) Por incumplimiento de las obligaciones contenidas en el artículo 47.3-4 y 6 del presente Reglamento. La declaración de tal estado y caducidad requerirá expediente administrativo.

c) Por ausencia de beneficiarios o herederos con derecho a suceder al titular fallecido del derecho funerario, conforme se establece en los artículos 44 y siguientes del presente Reglamento.

d) Por el transcurso de quince años desde el fallecimiento del titular, sin que el título funerario sea reclamado por los posibles beneficiarios o herederos.

e) Por abandono de la sepultura, al incurrir en el incumplimiento de las obligaciones contenidas en el artículo 47-6 del presente Reglamento, por un período superior a cinco años.

f) Por rescate de la concesión cuando venga determinada por causas de interés público; situación de ruina no imputable al titular de la concesión, u otras causas legales que resulten de aplicación.

g) Por renuncia del concesionario.

#### Artículo 50

1. En el supuesto a), expirado dicho plazo, se requerirá al titular a fin de que proceda al traslado de los restos a osarios o columbarios especiales.

En las concesiones temporales no renovables, el citado requerimiento se practicará, exclusivamente, a solicitud de persona interesada formulada ante B.Z. con antelación de seis meses a la fecha de extinción de la concesión.



2. Goiko c) eta d) kasuak bete ezean, emakida automatikoki iraungituz daiteke.

3. Goiko e) kasuari dagokionez, epea bukatu ondoren, auzibidea abiaraziko da, eta titularrari eskatuko zaio hogeiguneko epean ordainketa egin dezan; era berean, ohartaraziko zaio, ordaindu ezean, iraungituz joko dela.

4. Goiko f) kasuan, B.Z. sozietateak ahalmena izango du emakida aldatu eta antzeko ezaugarriak dituen beste bat jartzeko gertatzen den eperako, edo, bestela, interesdunari kalte-ordaina emateko, gozatu ez duen emakidaren epearen truke, indarrean dagoen tarifaren arabera.

Bi kasuetan, emakidadunak jatorrizko emakidan egindako obrek edo hobekuntzek ez diote inolako eskubiderik sorraraziko.

Oinordetza bidez hartutako transmisio baten ondorioz hainbat titular egonez gero, kalte-ordaina titular guztiei emango zaie, dagoen oinordetzaren kuotaren arabera.

5. Goiko g) kasuan, uko egiteko aukera doanekoa izango da, eta ez du inolako kalte-ordainik ez erreklamaziorik sorraraziko. B.Z. sozietatearen ustez, uko-egite hori interes publikokoa baldin bada, uko egin duen emakidadunari kalte-ordaina emango zaio, eta, kopuru hori kalkulatzeko, uko egitean indarrean dagoen tarifa biderkatuko da emakidari gertatzen zaizkion urtean kopuruagatik, horren emaitza zatituko da emakidaren iraupen osoagatik, eta era horretan kalkulatuak zenbatekoari %25 kenduko zaio.

Kasu horietan, emakidadunak jatorrizko emakidan egindako obrek edo hobekuntzek ez diote inolako eskubiderik sorraraziko.

## 51. artikulua

Iraungitzeko administrazioko espediente honela betearaziko da:

a) Eraikuntza partikularra hondatuta egoteagatik iraungitzen denean, helbide ezaguna duen titularrari egindako zitazioa jasoko da espedientearen; bestela, helbidea ezezaguna izanez gero, espedientearen publikizitatea egingo da, lurraldeko aldizkari ofizialean eta gehien irakurtzen diren bi egunkaritan ediktua argitaratuz, eta 30 eguneko epea emango da onuradunek, oinordekoek edo mesedetuek dagokien eskubidea eska dezaten.

b) Horietakoren bat azaltzen bada eta ondorio horretarako emandako epean eraikitze- edo konpontze-lanak egiteko konpromisoa adierazten badu, espediente iraungi arte etengo da, eta iraungitzen denean eskumena duen organoak egindako obrei buruzko txostena egin beharko du. Dena ondo badago, izapide gehiagorik egin gabe arxibatuko da espediente. Kontrakoa gertatuz gero, berriz, emakida iraungituz joko da, eta gorpuzkinak lekualdatzeko gastuak —horrelakorik badago— titularraren kontura izango dira.

49. artikulua a) eta f) kasuetan, helbide ezaguna duen titularrari egindako zitazioa jasoko da espedientearen; titularraren helbidea ezezaguna bada, berriz, espedientearen publikizitatea egingo da, eskualdeko aldizkari ofizialean ediktua argitaratuta, eta 20 eguneko epea emango da onuradunek, oinordekoek edo mesedetuek dagokien eskubidea eska dezaten. Epe hori igaro ondoren, iraungituz joko da.

c) Aurreko artikuluko gainerako kasuetan —g) idatz-zatia alde batera utzita—, iraungipena duen administrazioko espedientearen titularrari egindako zitazioa baizik ez da jasoko, eta hogeiguneko epea emango zaio ordainketa egin dezan edo luzapena eska dezan. Epe hori igarotzen bada eta ezer egiten ez badu, gorpuzkinak hezurtegi orokorrera eramango dira eta, hala behar bada, erraustuko dira. Aitzitik, ez da horrela joko legeak ezarritako epe barruan interesdunen batek adierazten badu bere gain hartu nahi duela gorpuzkinen ardura.

Gorpuzkinak lekuz aldatu ondoren, B.Z. sozietateak egokituz jotzen dituen eraberritze-lanak egiteko agindu ahal izango du, hobiratzeko unitate berria esleitu aurretik.

### IV. 4. SEKZIOA

#### HILETA-ESKUBIDEA ESKUALDATZEA

## 52. artikulua

Hileta-eskubidea, bere edukia eta indarraldia edozein direlarik ere, ezin izango da eskuz aldatu «inter vivos» egintzaz, ez dohaiarik, ez kostu bidez. Salbuespen bakarra 44. artikulua 1. idatz-

2. El incumplimiento de los supuestos c) y d), pueden producir automáticamente la caducidad de la concesión.

3. En el supuesto e), transcurrido dicho plazo, se abrirá expediente, requiriéndose al titular para que efectúe los pagos en el plazo de veinte días, con apercibimiento de que, de no hacerlo, se procederá a la declaración de caducidad.

4. En el supuesto f) B.Z. tendrá la potestad de, o bien cambiar la concesión por otra de similares características por el plazo restante de la concesión, o bien, indemnizar al interesado por el tiempo de concesión no disfrutado, en función de la tarifa vigente.

En ambos casos, no darán lugar a derecho alguno las obras o mejoras realizadas por el concesionario sobre la concesión original.

En caso de que a causa de transmisiones hereditarias existiesen diversos titulares, la indemnización se hará efectiva a los distintos titulares en función de su cuota parte hereditaria.

5. En el supuesto g), la renuncia será gratuita, no dando lugar a indemnización ni reclamación alguna. En caso de que dicha renuncia, a juicio de B.Z., sea de interés público, se indemnizará al concesionario renunciante con el resultado de multiplicar la tarifa vigente en el momento de la renuncia por los años restantes de concesión, dividiendo el resultado entre el total de la duración de la concesión y deduciendo del importe así calculado un 25% del mismo.

En dichos casos no darán lugar a derecho alguno las obras o mejoras realizadas por el concesionario sobre la concesión original.

## Artículo 51

El expediente administrativo de caducidad se ejecutará de la siguiente manera:

a) En los casos de caducidad por el estado ruinoso de la construcción particular, el expediente contendrá la citación del titular cuyo domicilio sea conocido o, si no lo es, publicidad del expediente mediante edicto en el «Boletín Oficial de Bizkaia», y la publicación en dos diarios, al menos, de mayor circulación, concediendo un plazo de 30 días a fin de que los beneficiarios, herederos o favorecidos puedan alegar su derecho.

b) La comparecencia de cualquiera de éstos con el compromiso de llevar a cabo las obras de construcción o reparación en el plazo que al efecto se asigne interrumpirá el expediente hasta su vencimiento, momento en que el órgano competente tendrá que informar acerca de las obras realizadas. Si resultan conformes, el expediente se archivará sin más trámite; en caso contrario se declarará la caducidad de la concesión; corriendo los gastos del traslado de los restos, si los hubiere, por cuenta del titular.

En los supuestos a) y f) del artículo 49, el expediente contendrá la citación del titular, cuyo domicilio sea conocido, o, si es desconocido, publicidad del expediente mediante edicto en el «Boletín Oficial de la Provincia», y se concederá un plazo de 20 días a fin de que los beneficiarios, herederos o favorecidos puedan alegar su derecho, transcurrido el cual se declarará la caducidad.

c) En los otros supuestos del artículo anterior, excepto el apartado g), el expediente administrativo de caducidad se limitará a la citación del titular y se le concederá un plazo de veinte días para ponerse al corriente de pago o para solicitar la prórroga, transcurridos los cuales sin que lo efectúe, se trasladarán los restos al osario general o, si procede, serán incinerados; salvo que, en el plazo legalmente establecido, cualquier persona interesada manifieste su intención de hacerse cargo de los mismos.

Una vez efectuado el traslado, B.Z. podrá ordenar las obras de reforma que estime necesarias, previamente a efectuar la nueva adjudicación de la unidad de enterramiento.

### IV. SECCIÓN 4.<sup>a</sup>

#### TRANSMISIÓN DEL DERECHO FUNERARIO

## Artículo 52

El derecho funerario, cualquiera que sea el contenido del mismo y el plazo de vigencia, será intransmisible por actos intervivos, ya sea a título oneroso o gratuito, excepto la cesión gratuita a favor



zatiko c) eta d) letretan zerrendatutako erakundeen alde edo laugarren mailara arteko senideen alde doan lagatzea izango da.

Hileta-eskubidea «mortis causa» eskualdatzeko, titularraren nahitaezko oinordekoen alde egin ahal izango da, oinordetza-eskubiderako arauetan xedatutakoa betez.

### 53. artikulua

Testamenduaren onuradunik edo oinordekorik egon ezean, eta nahitaezko bi oinordeko edo gehiagoren aurrean, bat hautatuko da haien artean. Hortaz, hori arituko da ordezkari gisa B.Z. sozietatearekin harremanetan jartzean, eta ordezkariari egindako jakinarazpenak titularkide guztiei egin zaizkiela joko da. Ordezkariak B.Z. sozietatearen aurrean egiten dituen jarduerak titularkide guztien izenean egiten dituela joko da, eta, beraz, titular guztiak ekintza horien betebeharrak bete beharko dituzte.

Ordezkariarik izendatu ezean, B.Z. sozietateak kausa eragin duen pertsonarengandik ahaidetasun-mailarik hurbilena duen titularkidea hautatuko du; eta, batek baino gehiagok maila bera edukiz gero, adinez nagusiago dena hautatuko du.

### 54. artikulua

Eskubidearen titularra hiltzean, izendatutako onuradunak, testamenduaren oinordekoak, edo aurreko artikulua araberako «ab intestato» dagokionak nahitaez eskualdatu beharko du bere alde, eta eskualdaketa eta dagokion titularen egiaztagiriak aurkeztu beharko ditu.

### 55. artikulua

Titular baten heriotza dela-eta eskubideak eskualdatu bitartean, behi-behinean, emakida erabiltzeko ekintzak ezinbestez egin behar izanez gero, eskualdaketa egiteko aurkeztutako agirietan ezarritakoa beteko da, eta, hori ezinezkoa bada, odolezko lotura hartuko da aintzat, oinordekotzako eskubideari jarraiki.

#### XEDAPEN IRAGANKORRA

2006ko martxoaren 3tik eta Araudi hau indarrean sartu arte emandako emakidei dagokienez, hemen finkatutako emakida-epaiek ezarriko dira, onuragarriagoak direlako.

#### XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indarrak gabe geratzen da 1993ko apirilaren 10eko Hilerrietako Araudia.

#### AZKEN XEDAPENA

Arautegi hau, behin onartuta, «Bizkaiko Aldizkari Ofizialean» argitaratu eta biharamunean sartuko da indarrean.

(II-7176)

## Busturialdeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea

### IRAGARKIA

Mankomunitateko Batzar Orokorrak, 2012ko uztailaren 26ko batzar arruntean Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua arautzen duen Ordenantzaren xedapen iragankor bakarra aldaraztea behin-behinean onesteko akordioa hartu zuen.

Eta Tokiko Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49 eta 70.2 artikuluetan xedatutakoa betez, espediente jendaurrean erakusten da hogeita hamar egunez, iragarki hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoko egunetik aurrera zenbatuta, jendeak aztertu ahal izateko eta egoki irizten zaizkien alegazioak egin ahal izateko. Epe hori bukatutakoan ez bada alegaziorik egin, aldarazpen hau behin betiko onetsita geratuko da. Beraren testu osoa aldizkari ofizial honetan argitaratu ondoko egunean indarrean sartuko da.

Gernika-Lumon, 2012ko irailaren 17an.—Elkargorua, Begoña Landa Torre

(II-7165)

de las entidades relacionadas en las letras c) y d) del apartado 1.º del artículo 44 o a favor de familiares hasta el cuarto grado.

La transmisión «mortis causa» del derecho funerario, podrá realizarse exclusivamente a favor de los herederos forzosos del titular, determinados conforme a las normas del derecho sucesorio.

### Artículo 53

A falta de beneficiario o heredero testamentario, y ante la existencia de dos o más herederos forzosos, designarán de entre ellos uno sólo, que actuará como representante a todos los efectos de comunicación con B.Z., reputándose válidamente hechas a todos los cotitulares las comunicaciones dirigidas al representante. Los actos del representante ante B.Z. se entenderán realizados en nombre de todos los cotitulares, que quedarán obligados por los mismos.

A falta de designación de representante, B.Z. tendrá como representante al cotitular que ostente la relación de parentesco más próxima con el causante; y en caso de igualdad de grado, al de mayor edad.

### Artículo 54

Al fallecimiento del titular del derecho, el beneficiario designado, el heredero testamentario, o aquél o aquellos a quienes corresponda «ab intestato» conforme al artículo anterior, estarán obligados a realizar la transferencia de derechos a su favor, compareciendo con los documentos justificativos de la transmisión y acreditación del título correspondiente.

### Artículo 55

Mientras se desarrolle la transferencia de derechos por fallecimiento de un titular y de forma provisional, en caso de ser imprescindible la realización de actos de disposición de la concesión se atenderá a lo establecido en la documentación aportada para la transferencia y de no ser posible, al vínculo sanguíneo, siguiendo el derecho sucesorio.

#### DISPOSICIÓN TRANSITORIA

Para las concesiones otorgadas entre el 3 de marzo de 2006 y la fecha de entrada en vigor de la presente Reglamento, se aplicarán los plazos de concesión en esta establecidos, por ser más beneficiosos.

#### DISPOSICIÓN DEROGATORIA

Queda derogado, el Reglamento de Cementerios, de 10 de abril de 1993.

#### DISPOSICIÓN FINAL

El presente Reglamento entrará en vigor, una vez aprobado, al día siguiente de su publicación en el «Boletín Oficial de Bizkaia».

(II-7176)

## Mancomunidad de Servicios Sociales de Busturialdea

### ANUNCIO

La Junta General de la Mancomunidad en sesión ordinaria celebrada el día 26 de julio de 2012 adoptó el acuerdo de aprobación provisional de la modificación de la Disposición transitoria única de la de la Ordenanza reguladora de la prestación del servicio de ayuda a domicilio.

Y en cumplimiento de lo dispuesto en los artículos 49 y 70.2 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local, se somete el expediente a información pública por el plazo de treinta días, a contar desde el día siguiente a la publicación de este anuncio en el «Boletín Oficial de Bizkaia», para que pueda ser examinado y en su caso se formulen las alegaciones que se estimen convenientes. Si transcurrido dicho plazo no se hubiesen presentado alegaciones, la modificación se considerará aprobada definitivamente, entrando en vigor a partir del día siguiente a la publicación del texto íntegro de la misma en este «Boletín Oficial de Bizkaia».

En Gernika-Lumo, a 17 de septiembre de 2012.—La Presidenta, Begoña Landa Torre

(II-7165)